Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua

Zizur Nagusiko Udala · Ayuntamiento de Zizur Mayor

## ONARPEN PROZESUKO BAREMOA

| LEHENTASUNEZKO IRIZPIDEAK | PUNTUAK |
|---|---|
| **Anai edo arrebaren bat ikastetxe horretan matrikulatuta egotea** | **Geh. 3** |
| **Gurasoen edo legezko ordezkarien bizilekua edo lantokia gertu izatea.** | **Geh. 10** |
| **–Udal titulartasuneko ikastetxeetan:** | |
| –Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik ikaspostu eskabidearen xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoaren barneko udalerri batean (horretarako akordioa ezarria duten udalerrietan). | 10 |
| –Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik ikaspostu eskabidearen xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoan. | 2 |
| **–Hezkuntza Departamentuaren titulartasuneko ikastetxeetan:** | |
| –Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik Nafarroako Foru Komunitateko udalerri batean. | 10 |
| –Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik Nafarroako Foru Komunitateko udalerri batean. | 2 |
| Familia-unitatearen per capita errenta: | **Geh. 3** |
| –Lanbide arteko gutxieneko soldataren erdiaren parekoa edo txikiagoa. | 3 |
| –Lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia baino handiagoa baina haren hiru laurden edo txikiagoa. | 2 |
| –Lanbide arteko gutxieneko soldataren parekoa edo txikiagoa baina haren hiru laurdenetik gorakoa. | 1 |
| –Lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa. | 0 |
| **Haurrak desgaitasuna izatea, edo haren guraso, legezko ordezkari edo anai edo arrebaren batek:** | **Geh. 2,5** |
| –Ikaspostu eskabidearen eraginpeko haurrak desgaitasuna badu. | 2 |
| –Ikaspostu eskabidearen eraginpeko haurraren gurasoek edo legezko ordezkariek edo anai-arrebek desgaitasuna badute. | 0,5 |
| **Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea.** | **Geh. 1** |
| Bi inguruabarrak edo bietako bat gertatzen bada. | 1 |

| | |
|---|---|
| **Gurasoek edo legezko ordezkariek ikastetxean lan egitea.**<br>Gurasoek edo legezko ordezkariek ikastetxe horretan lan egiten badute. | 0,8 |
| **Legez familia ugariko kide izatea** | 0,8 |
| **Haurra familia-harrerako egoeran egotea** | 0,8 |
| **Familia gurasobakarra izatea** | 0,8 |
| **Erditze anizkoitzean jaioa izatea** | 0,8 |

| **IRIZPIDE OSAGARRIA**<br>**(Kontuan hartuko da, bakar-bakarrik, baldin eta berdinketa mantentzen bada, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 11ko 16/2024 Foru Aginduaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera)** | |
|---|---|
| **Familia orokorrak.**<br>Bi gurasoak edo legezko ordezkariak honako egoeretako batean badaude: lanean, Gizarte Segurantzan alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan. | 1 |
| **Guraso bakarreko familien kasuan edo guraso bakarreko familia izan gabe zaintza eta jagoletza esklusiboa duen gurasoaren kasuan.**<br>Gurasoa honako egoeretako batean badago: lanean, Gizarte Segurantzan alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan. | 1 |